

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Behin betiko onspena ematea ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen ordenantza- ren aldaketari (hobariak)

Jendaurrean egon den arauzko tartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da espedientea ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren 16. artikulua (hobariak) 5. eta 6. apartatuak aldatzeko. Hona hemen aldaketaren testua, hitzez hitz:

Hobariak. 16. artikulua

5. Ondasun higiezin gaineko zergako kuota osoan hobariak izateko eskubidea izango dute etxebizitza bezala bakarrik erabiltzen diren ondasun higiezinak, baldin eta etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua bada, bertan bizi den bizikidetzaren unitateko kideetako inork ez badu etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezinik eta bertan bizi den bizikidetzaren unitateko kideek, batera, urtean 42.000 euro baino gutxiagoko errenta badute.

Hobari hau, hala dagokionean, zerga kobratzen hasi baino lehenago subjektu pasiboak eskatuta emango da. Errenta zehazteko, aurreko urteko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, ziurtagiria edo errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.

Kuota osoko hobariaren ehunekoa bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren eta bizikidetzaren unitateko kide guztien errentaren arabera izango da, taula honi jarraiki:

FAMILIA EDO BIZIKIDETZA UNITATEKO KIDE KOPURUA	ERRENTA, 21.000 EURO BAINO GUTXIAGO	21.001 ETA 29.000 EURO BITARTEAN	29.001 ETA 38.000 EURO BITARTEAN	38.001 ETA 42.000 EURO BITARTEAN
1	ehuneko 75	ehuneko 20	ehuneko 0	ehuneko 0
2	ehuneko 90	ehuneko 75	ehuneko 20	ehuneko 0
3	ehuneko 95	ehuneko 80	ehuneko 60	ehuneko 30
4	ehuneko 95	ehuneko 95	ehuneko 80	ehuneko 75

6. Irizpide hauek hartuko dira kontuan aurreko apartatua araututako hobariak aplikatzeko:

a) Zaintza partekatuan diren seme-alabak, eskatzailearen etxean erroldatuta egon ez arren, bizikidetzaren unitateko kide izango dira. Halakoetan, taulan adierazitako hobariaren erdia aplikatuko zaio eskatzaileari.

b) Hobarigai den etxebizitzaren erroldatuta egoteko betekizuna isildu egingo da, baldin eta, mendekotasun egoera dela eta, egoitzetan, ospitaleetan edo laguntza zentroetan erroldatuta egoteko beharra badago.

c) Hobaria aplikatuko zaie etxebizitza gozamina edo alargunaren izenean ordainagiria duten alargun egoerei, baldin eta gainerako betekizunak betetzen badira.

d) Familia unitateko kideren batek jaraunspen bidez beste etxebizitzaren baten zati badu, etxebizitzatarako erabilera duen beste higiezin bat ez izateko betekizuna dela eta, joko da betekizun hori betetzen dela, baldin eta zatia ehuneko 50 baino gutxiago bada, handiagoa bada, ordea, betekizuna betetzen ez dela joko da.

e) Jabekidetasuna denetan, eskatzaileak jabetzan duen ehunekoaren arabera izango da aplikatuko zaion hobaria.

f) Bizikidetzaren unitateko kide kopurua da eskaeraren unean errolda bidez egiaztatutako kopurua eta, beraz, haien diru sarrerak konputatu beharko dira.

g) Bizikidetzaren unitateko errenta zehazteko, diru sarrera dira, halaber, PFEZa ordaintzetik salbuetsita dauden errentak.

Zerga ordenantza honen behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahalko dute interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Hori guztiak ez dio eragotziko egoki jotzen duen beste edozein errekurtsio aurkeztea.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Araia, 2020ko apirilaren 8a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ